



Biosfera Erreserba
Reserva de la Biosfera

**URDAIBAI BIOSFERA ERRESERBAKO
LANKIDETZA KONTSEILUAK 2006ko
URTARRILAREN 19an EGINDAKO
BILKURAREN AKTA.**

BERTARATUAK

**Iñaki URIBARRENA IBARGUENGOITIA
JAUNA**

Lankidetzako Kontseiluko presidentea

José Angel ECHANIZ ORTUÑEZ jauna
Gernikazarra Historia Taldea

Juan Carlos LOPEZ QUINTANA jauna
Agiri Arkeologi Elkarte

Jabier LARRINAGA LEKERIKA jauna
Bizkaiko Erlezain Elkarte

Erroxeli OJINAGA FILIBI jauna
Zain Dezagun Urdaibai

Jose M^a OLAETA
Baserri eskolen Elkarte

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailetik.

- **Esther LARRAÑAGA GALDOS andrea**
Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburua
eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatuko
Presidentea

- **Ibon GALARRAGA GALLASTEGI jauna**
Ingurumeneko Sailburuordea

- **Elisa SAINZ DE MURIETA ZUGADI
andrea**
Bioaniztasuneko eta Ingurumen Partaidetzako
Zuzendaria.

XABIER ARANA Eiguren jauna
Zuzendari-artatzailea

Teodoro OLEA ITURREGI jauna

**ACTA DE LA SESION DE 19 DE ENERO
DE 2006 DEL CONSEJO DE
COOPERACION DE LA RESERVA DE LA
BIOSFERA DE URDAIBAI.**

ASISTENTES

**D. Iñaki URIBARRENA
IBARGUENGOITIA**

Presidente del Consejo de Cooperación.

D. José Angel ECHANIZ ORTUÑEZ
Gernikazarra Historia Taldea

D. Juan Carlos LOPEZ QUINTANA
Agiri Arkeologi Elkarte

D. Jabier LARRINAGA LEKERIKA
Asociación de Apicultores de Bizkaia

D. Erroxeli OJINAGA FILIBI
Zain Dezagun Urdaibai

D. Jose M^a OLAETA
Baserri Eskolen Elkarte

Por parte del Departamento de Medio Ambiente
y Ordenación del Territorio.

- **D^a. Esther LARRAÑAGA GALDOS**
Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del
Territorio y Presidenta del Patronato de la
Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

- **D. Ibon GALARRAGA GALLASTEGI**
Viceconsejero de Medio Ambiente

- **D^a. Elisa SAINZ DE MURIETA ZUGADI**
Directora de Biodiversidad y Participación
Ambiental

D. Xabier ARANA EIGUREN
Director Conservador

D. Teodoro OLEA ITURREGI





Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatuko idazkaria

“Udetxea” jauregian, 2006eko Urtarrilaren 19eko, arratsaldeko 18.00 ean, Iñaki URIBARRENA IBARGUENGOITIA jaunaren presidentziarekin eta Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatuko idazkaria den Teodoro OLEA ITURREGI jaunaren laguntzarekin, goiburukoan aipaturiko jaunak bildu dira, nahiko alde aurretik banaturiko egunetako gai zerrendako puntuak aztertzeko, eta bilkura ondoren adierazitakoaren arabera garatu da.

Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatuko Lankidetzaren Kontseiluaren bilkura hau monografikoa da; bertan, Kontseiluak eskatuta, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailburua dago (Patronatuko presidentea ere bada), Urdaibai Biosfera Erreserbaren erronkak aztertzeko. Bilkuran, kide guztien parte-hartze erronda antzeko bat egin da; horiek oraingo ikuspegia azaldu dute, Urdaibai Biosfera Erreserbaren egoerari buruz, eta azkenik, sailburuak hitz egin du, planteaturiko gaien erantzuna emateko.

Lehenengo eta behin, José Angel ETXANIZ jaunak (Gernikazarra) hartu du hitza; aditzera eman du bere ustez sinesgarritasun arazo larriak daude Patronatuko arduradunen inguruan; izan ere hiritarren iritziz, konparazio-irainak egiten ari dira, apurtu egiten baita legearekiko berdintasun printzipioa. Horri dagokionez, José Antonio Ardanza lehendakariaren txaletean gertaturiko legez aurkako jarduerak aipatu ditu, baita Gaategiz-Arteagako alkateak gai horretan izan duen arduragabekeria ere. Bestalde, Cantera Peña Forua harrobiaren ustiapenaren egoera aipatu du, eta azkenik, aditzera eman du etorkizunean arazoak egon daitezkeela diputatu nagusia izandako José Alberto Pradera jauna Kortezubiko Basondo auzoan gaitzen ari den baserriarekin.

Ondoren, Urdaibaik biztanleen artean duen irudi txarra aipatu du; izan ere, eskualdeko gaitz guztien errua Urdaibairi leporatzen zaio, batzuetan akusazio barrengarrietan oinarrituz,

Secretario del Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai

En la sede del “palacio Udetxea”, a las 18.00 h del día 19 de Enero de 2006, bajo la Presidencia del Sr. D. Iñaki URIBARRENA IBARGUENGOITIA, asistido por el Secretario del Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai D. Teodoro OLEA ITURREGI, se reúnen los señores anotados en el encabezamiento al objeto de tratar los puntos de orden del día distribuido con la debida antelación, y que se desarrolla como a continuación se expresa.

Esta reunión del Consejo de Cooperación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, se plantea como sesión monográfica, en la que a petición del Consejo, asiste la Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, ya la vez Presidenta del Patronato, para mantener una entrevista en la que se analizan los retos que tiene planteados la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. La reunión se desarrolla a modo de una ronda de intervenciones por parte de los miembros, que van presentando su visión actual del estado de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y una intervención final de la Consejera para responder a las cuestiones planteadas.

El primero en intervenir es D. José Angel ETXANIZ (Gernikazarra), que comienza exponiendo lo que considera graves problemas de credibilidad en la actuación de los responsables del Patronato, y que se perciben por la ciudadanía como agravios comparativos, puesto que se rompe el principio de igualdad ante la ley. Así, relaciona los casos de las ilegalidades en el chalet del ex Lehendakari José Antonio Ardanza y la actitud de inhibición total de la Alcaldesa de Gaategiz-Arteaga. Por otro lado, está la situación de la explotación de la Cantera Peña Forua y por último apunta la posibilidad de un nuevo conflicto futuro en el caserío que está rehabilitando el ex Diputado General José Alberto Pradera en el barrio de Basondo en Kortezubi.

Seguidamente, señala la mala imagen que tiene Urdaibai entre la población, al que se achacan casi todos los males de la comarca, aunque a veces sean incluso acusaciones ridículas como



esate baterako, helikopteroetatik sugeak botatzearen akusazioa. Hori dela eta, Sailari esan dio beharrezkoa dela Urdaibaiko proiektuaren irudi-kanpaina handia egitea; bertan, Urdaibai zer den eta helburuak zein diren azaldu beharko da.

Ondoren, Iñaki URIBARRENA jaunak hartu du hitza (CCOO eta Lankidetzaren Kontseiluko presidentea); gizarte eragileei partaidetza handiagoa eskatu die, Urdaibaiko PADASaren Jarraipen Batzordean; izan ere, bere iritzian, tresna garrantzitsua da (EKEGekin batera) Urdaibairen proiektuan.

Halaber, industria sektoreak eskualdean dituen arazoak aipatu ditu; esaterako, Astilleros de Murueta edo INAMA enpresek dituzten arazoak; arazo horiek zalantzazko industrializazio eredu baten eraginezkoak dira, eta eredu horrek zalantza handiak sortzen ditu martxan dauden jarduera ekonomikoetarako eremuen inguruko ekimen berriei dagokienez.

Azkenik, Sailak Patronatuan lanean ari diren pertsonen lan egoeraren inguruan dituen aurreikuspenei buruz galdetu du, kontuan hartuta orain dela urte batzuetatik hona duten azpikontratazio egoera; halaber, jakin nahi du ea langileria organikoa sortzeari buruzko erabakiren bat ote dagoen.

Ondoren, Erroxeli OJINAGA jaunak (Zain Dezagun Urdaibai) hitza hartu eta honako hau azaldu du:

- Bere ustez, eskandaluzkoa da sindikatuek emandako datua, Urdaibaiko enpresa guztien ia %90k euren jarduera legez-tatu barik edukitzeari buruz.

- Urdaibairen arauzko garapenak ez du beharrezko erritmoa izan: Lurralde Ekintzako Planak, Lurralde Plan Partziala,... Horren ondorioz, udalak erreferentziako lurralde eredurik gabeko hirigintza garapenak planteatzen ari dira, eta, horren eraginez, Legea onesteko garaian babesturik zegoen lurzoruz azalera guztiz murriztuta dago gaur egun.

la de echar serpientes desde helicópteros. Por ello, plantea al Departamento la necesidad de una importante campaña de imagen a favor del proyecto de Urdaibai, en la que se explique qué es Urdaibai y cuáles son sus verdaderos objetivos.

A continuación, toma la palabra D. Iñaki URIBARRENA (CCOO y Presidente del Consejo de Cooperación), para reclamar una mayor participación de los agentes sociales en la denominada Comisión de Seguimiento del PADAS de Urdaibai, que considera un instrumento importante en el proyecto de Urdaibai, junto al PRUG.

Así mismo, menciona la problemática del sector industrial en la comarca, como son el caso de Astilleros de Murueta o de INAMA, y que proviene de un modelo de industrialización cuestionable y que genera dudas respecto de las nuevas iniciativas de áreas de actividades económicas que están en marcha.

Por último, pregunta cuáles son las previsiones que tiene el Departamento respecto de la situación laboral de las personas que actualmente trabajan en el Patronato, teniendo en cuenta la situación de subcontratación que se mantiene desde hace años, y si existe algún tipo de decisión en torno a la creación de un plantilla propia orgánica.

Seguidamente, es el turno de D. Erroxeli OJINAGA (Zain Dezagun Urdaibai) que reseña las siguientes cuestiones:

- Considera escandaloso el dato aportado por distintos sindicatos de que casi el 90 % de las empresas en funcionamiento en Urdaibai no tienen legalizada su actividad.

- No se ha procedido al desarrollo normativo de Urdaibai al ritmo necesario: Planes de Acción Territorial, el Plan Territorial Parcial,... Como consecuencia de ello, los Ayuntamientos están planteando desarrollos urbanísticos sin ningún modelo territorial de referencia, y como resultado final, la superficie de suelo que fue objeto de protección en el tiempo de la aprobación de la Ley, hoy día se ha visto reducida de manera significativa.



- Patronatuak emandako txosten asko lotesleak dira, baimena eman behar duen administrazioarentzat, baina gero ez da betearazitakoaren jarraipenik egiten.

- Uraren politikari dagokionez, eta hondakinen arloan, kritikatu egin du Urdaibaiko itsasertzaren eremuari zona sentikorren kalifikazioa kentzea, horrela estuarioaren barrualdetik banandu baita, horretarako zentzuzko azalpenik eman gabe.

- Azkenik, Patronatuaren nortasun juridikoa aipatu du; bere ustez, erakunde autonomoa behar da eskualdearen kudeaketa integrala egiteko.

Ondoren, Jabier LARRINAGA jaunak (Bizkaiko Erlezain Elkarte) hitza hartu eta honako gai hauek jorratu ditu:

Alkate askok Urdaibairen irudi txarra erabili dute, hiritarren aurrean eskuak garbitzeko eta udalerrri mailako arazoak Urdaibairi leporatzeko. Horrela, "esku azpiko" aginte antzekoa sortu da, EKEGen ustez legez aurkakoak ziren jarduketei dagokienez, eta alkateek izandako jokabide horrek ahuldu egin du Patronatuaren irudia, legezketasunaren bermatzailatzat (basoko ustiapenetako ustiapen metodo erasokorren gaia aipatu du).

Horrenbestez, Patronatuak ikuskapen taldea edukitzea eskatu du, eta horrek lurraldean bertan jardun eta geldiarazi egingo ditu jarduketak, horiek konpondu ezineko kalteak sortu baino lehen; prebentzioko ikuskapen talde horrek ahalmen betearazleak izango ditu.

Azkenik, Juan Carlos LOPEZ QUINTANA jaunak (Agiri) hartu du hitza. Bere hitzaldia kultura ondarearen ingurukoa izango dela esan du. Horrela, lehenengo eta behin, Agirik 1999an aurkezturiko diagnostikoa gogoratu du; bertan, Urdaibaiko kultura ondarearen egoera baloratzen zen. Bere ustez, diagnostiko hori etsigarria zen: kontserbazio egoera oso txarra, ondarearen suntsipena (baso jarduketa erasokorren eraginez), ...

- Muchos de los informes que emite el Patronato son vinculantes para la Administración autorizante, sin embargo a posteriori no se hace un seguimiento de lo que realmente se ejecuta.

- Sobre la política del agua, y en materia de vertidos, critica la retirada de la calificación de zona sensible al área del litoral de Urdaibai, desvinculándola de la parte interior del estuario, sin que exista ninguna explicación razonable.

- Finalmente, menciona la cuestión de la personalidad jurídica del Patronato y la necesidad operativa de un ente autónomo para la gestión integral de la comarca.

A continuación, interviene D. Jabier LARRINAGA (Asoc. Apicultores de Bizkaia) que aborda los siguientes temas:

La mala imagen de Urdaibai ha sido utilizada por muchos Alcaldes para escudarse ante los ciudadanos frente a todo tipo de problemas que eran, realmente, de carácter municipal. Así, paralelamente se ha creado una forma de autorización "bajo mano" de actuaciones que según la normativa del PRUG eran ilegales, y esta práctica por parte de los Alcaldes ha debilitado la imagen del Patronato como garante de la legalidad (menciona específicamente la cuestión de los métodos de explotación agresivos en las plantaciones forestales).

En conclusión reclama un cuerpo de inspección propio para el Patronato, que actúe sobre el terreno y que paralice las actuaciones antes de que provoquen daños irreparables, un cuerpo de inspección preventivo con facultades ejecutivas.

Finalmente, toma la palabra D. Juan Carlos LOPEZ QUINTANA (Agiri), que adelanta que su intervención se centrará sobre la materia del patrimonio cultural. Así, comienza recordando el diagnóstico que Agiri presentó en el año 1999, en el que se valoraba la situación del patrimonio cultural en Urdaibai. Califica aquel diagnóstico con el adjetivo de desesperanzador: estado de conservación pésimo, destrucción de patrimonio por actuaciones forestales



Gaur egun, panorama positiboa planteatzen du; izan ere, ondarea babesteko eta defendatzeko talde bat dago, eta gainera, boluntarioak ere lan handia egiten ari dira. Bestalde, Patronatuko Batzorde Iraunkorrek emandako txostenak ere aipatu ditu; bertan, kulturaren arloko baldintza batzuk ezartzen ziren, eraikin bat birgaitzeko jarduketa batean, edo eskualdeko saneamendu integralko obretan,... Azken batean, Patronatuari adorea eman dio kultura ondarea modu aktiboan babesteko bide horretatik jarraitzeko.

Bestalde, UNESCO Katedraren bidez aplikaturiko ikerketaren gaia planteatu du. Bere ustez, zalantzazkoa da ikerketa lerroak nahitaez Unibertsitatearen bitartez garatu behar izatea; izan ere, Urdaibain balio handiko taldeak daude eta horiek ez daude integraturik Euskal Herriko Unibertsitatean; beraz, ezin dituzte eskuratu dirulaguntzen lerroak.

Lankidetzaren Kontseiluko kideen azalpena amaitu ondoren, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Sailburua eta Patronatuko Presidentea den Esther LARRAÑAGA andreak hitza hartu eta erantzun egin die planteaturiko gai batzuei:

- Patronatuaren nortasun juridikoari dagokionez, gogoratu du hausnarketa horrek urte batzuetatik hona presentzia iraunkorra duela Sailean; hala ere, eskaturiko txosten juridikoen arabera, ez dauka berariazko onarpenik Urdaibaiko Legean, eta beraz, Legearen testua bera aldatu behar da.

Ondoren, berak esandakoaren arabera, Urdaibaiko Legea aldatzeko ahalegin bat (eta arlo horretan esperientzia handia dago) Urdaibairen aurkakoa izan daiteke, eskualdeko alderdi politikoen arteko adostasunik ez egotearen ondorioz. Hortaz, bere ustez zaila da legegintzaldi honetan halako legegintza aldaketari heltzea.

- Patronatuaren erabakien jarraipenik ezari eta

agresivas....

A día de hoy, plantea un panorama en positivo y en avance por la existencia de un grupo para la protección y defensa del patrimonio, y de actuaciones importantes desde el voluntariado. Por otro lado, también señala varios informes emitidos por la Comisión Permanente del Patronato en el que se establecían una serie de condicionantes de orden cultural en una actuación de rehabilitación de un edificio, o en las obras de saneamiento integral de la comarca,... En conclusión anima al Patronato a seguir por este camino de protección activa del patrimonio cultural.

En otro orden de cosas, plantea también la cuestión de la investigación aplicada a través de la Cátedra UNESCO. Cuestiona que las líneas de investigación tengan que desarrollarse obligatoriamente a través de Universidad, porque existen colectivos investigadores muy válidos en Urdaibai, que no están integrados en la Universidad del País Vasco y que en consecuencia, no pueden acceder a las líneas de subvenciones.

Una vez finalizada la ronda de intervenciones de los miembros del Consejo de Cooperación, toma la palabra D^a. Esther LARRAÑAGA, Consejera de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio y Presidenta del Patronato, para responder a alguna de las cuestiones planteadas:

- En relación a la cuestión de la personalidad jurídica del Patronato, recuerda que es una reflexión que está constantemente en el Departamento desde hace años, pero que según los informes jurídicos recabados, carece de reconocimiento expreso en la Ley de Urdaibai, por lo que sería precisa una modificación en el texto de la propia Ley.

Seguidamente, reconoce que un intento de modificación en la Ley de Urdaibai, y ya existe experiencia en la materia, puede volverse al final en contra del propio Urdaibai, por la falta de un consenso entre los partidos políticos de la comarca. Por tanto, ve realmente difícil que a lo largo de esta legislatura pueda abordarse una modificación legislativa de este tipo.

- En cuanto a la cuestionada falta de



arlo horretan kontroleko esku-hartzerik ez egoteari dagokionez, berak esandakoaren arabera, ez da ahaztu behar Patronatuaren eginkizun nagusia aurretiazko txostenak ematea dela, eta legez ez duela eratzikita osterantzeko baimen ahalmenik. Beraz, Patronatuak ezin du ikuskatzailea izan udalen jarduketan, zaindegi talderik eduki ezin duen moduan, ez baitauka horretarako eskumenik.

- Gizarte eragileek Jarraipen Batzordean partaidetza handiagoa eduki behar izateari buruz egindako eskariari helduz, Xabier ARANA jaunak (zuzendari-artatzailea) esan du ikuspegi legaletik begiratura ez dagoela arazorik, Batzordearen osaketa handitzeko.

Eta aztertzeke beste gairik ez dagoenez, Presidentziak amaitutzat jo du bilkura, 19:30ean; gero, Patronatuko idazkariak akta hau egin du.

Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 indarreko legearen 27.5 artikulua ezartzen duenez (BAO 285 zenbk.), aditzera ematen da akta hau oraindik onetsi gabe dagoela.

seguimiento de los acuerdos del Patronato, y la ausencia de intervención de control sobre el terreno, subraya que no debe olvidarse que la función principal del Patronato es la de emitir informes previos, y que no tiene atribuidas legalmente potestades autorizatorias. Por consiguiente, el Patronato no puede ejercer de fiscalizador de la actuación de los Ayuntamientos, del mismo modo que no puede tener un cuerpo de guardería, porque no tiene atribución competencial para ello.

- Retomando la demanda realizada anteriormente sobre una mayor participación de los agentes sociales en la Comisión de Seguimiento, D. Xabier ARANA (Director-Conservador) aclara que desde el punto de vista legal, no existe ningún inconveniente en que se amplíe la composición de la mencionada Comisión.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Presidencia da por concluida la sesión, cuando son las 19 horas y 30 minutos, levántandose posteriormente el presente acta por el abajo suscrito Secretario del Patronato.

De conformidad con lo prevenido en el art. 27.5 de la vigente Ley 30/1992, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (B.O.E. nº 285), se señala que la presente acta se halla aún pendiente de aprobación.

Izta.: **TEODORO OLEA ITURREGI.:Fdo**
IDAZKARIA SECRETARIO

OI: IÑAKI URIBARRENA IBARGUENGOITIA VB
LANKIDETZA KONTSEILUKO LEHENDAKARIA
PRESIDENTE DEL CONSEJO DE COOPERACION